## XLII. UDA IKASTAROEN IREKIERA EKITALDIA

Lehendakari jauna; Legebiltzarreko presidente andrea; Donostiako alkate jauna; Gipuzkoako diputatu nagusi jauna; Batzar Nagusietako presidente jauna; Espainiar Gobernuko ordezkari jauna; BBVA Fundazioko zuzendari nagusi jauna; Uda Ikastaroen zuzendari andrea; errektore ohi jauna; Constanza Tobío irakasle andrea; herri agintariok, jaun-andreok. Arratsalde on.

Euskal Herriko Unibertsitatearen ibilbide osoan zehar gure alboan izan ditugu Uda Ikastaroak. Horrek, azkenean, ondorio argia izan du: Euskal Herriko Unibertsitatearen ezaugarri funtsezkoa dira gure Uda Ikastaroak.

Hori dela eta, gure esker ona adierazi nahi dizuet proiektu hau indartsu mantentzea posible egin eta egiten duzuen erakunde publikoei, pribatuei eta ikastaroen etorkizunaren alde diharduzuenoi. Beraz, lehendakaria, alkatea, diputatu nagusia: eskerrik asko zuen babesagatik eta gaur ekitaldi honetan gurekin egoteagatik.

Y gracias a la Fundación BBVA por el firme respaldo a nuestros Cursos de Verano. Gracias Rafael, por ese apoyo constante, personal e institucional.

Eskerrik asko, halaber, hainbat ikastaro, kongresu edo jarduera babesten dituzten beste administrazio, enpresa eta elkarteei.

Y gracias, profesora Constanza Tobío, por su conferencia: una documentada reflexión que subraya no sólo el papel que la mujer debe jugar en el futuro de la ciencia, sino el que ha jugado ya, aunque frecuentemente

de forma secreta, casi invisible, más bien invisibilizada. Por fortuna, al menos en el entorno europeo, avanzamos hacia la igualdad entre mujeres y hombres, también en ciencia.

Este avance es bueno para las mujeres, por supuesto, y para toda la humanidad. La ciencia, a medida que tiene una base social mayor, mejora en sus resultados y en el logro de objetivos.

Una base social educada, una base científica sólida, nos permite avanzar en el conocimiento que tenemos sobre la complejidad del mundo y nos permite también estar más preparados para abordar los retos de futuro.

Hezkuntzari esker, arrazoimenari esker, jakintzan oinarritutako pentsamendu kritikoari esker..., gero eta hobeto ulertzen dugu munduaren konplexutasuna. Gizarte-ongizatean eragin handiko urratsak emateko gai gara; adibidez, COVID-19aren aurkako txertoa sortzea hilabete gutxi batzuetan.

Proiektu kolektibo handi guztiek, aurrerapen handiek... ezagutza handia behar dute, elkarlan handia eta komunikazio handia. Proiektu batek arrakasta izan dezan, lan handia egin behar da aurretik, hizkuntza komun bat erabili, ebidentzietan oinarritu, jakiteko zerk funtziona dezakeen eta zerk ez, gure ikuspuntuak ulertaraztea eta beste ikuspuntu batzuk ulertzea.

Halaber, garrantzitsua da ezagutza, elkarlana eta komunikazioa demokratizatzea, aurrerapen teknologikoei eta sozialei ekiteko. Esango nuke demokrazian bizitzea dela gizarte-lorpen handietako bat. Urrats handi bat da, aukera ematen diguna gero eta pertsona gehiagok parte hartzea gizarte gisa hazten eta hobetzen lagundu behar diguten erabakietan.

Democratizar el acceso a la educación es poner en valor el derecho de todas las personas a tener las mismas oportunidades de desarrollarse profesionalmente, pero es mucho más que eso, ya que funciona también como una vacuna social contra la credulidad acrítica ante posiciones categóricas, pero sin fundamento. Y como vacuna, tiene más éxito si obtenemos ese ansiado nivel de inmunidad de grupo, que no permite que el virus de esa credulidad acrítica actúe a sus anchas y se expanda sin barreras.

Bitxia bada ere, inguratzen gaituen mundua eta, beraz, gure gizartea ulertzeko eta ezagutzeko gure gaitasuna areagotu egiten den heinean, gure desafioak eta gure proiektu kolektiboak konplexuagoak dira. Bada, aldi berean, badirudi gero eta sinpleagoak direla eztabaida publikoa eta erabaki demokratikoetan erabilitako argudioak.

Hace unos años (en 2019) se publicó en la prestigiosa revista *Proceedings of the National Academy of Sciences* (PNAS), un análisis exhaustivo sobre textos de todos los presidentes de Estados Unidos desde finales del siglo XVIII, así como intervenciones en debates, entrevistas, campañas de primarias y discursos. Las conclusiones fueron claras: la comunicación en política es cada vez más informal, más narrativa.

"Es una paradoja del éxito de la democracia que ocurre desde los tiempos de Platón -explica el editor del trabajo, Steven Pinker- Los líderes políticos tienen que dirigirse a un grupo cada vez mayor de votantes y esto lleva a una mayor simplicidad y emocionalidad".

Los discursos se han de democratizar y hacerse accesibles a todo el mundo, pero hay un alto riesgo de que la simplificación excesiva derive en

polarización y extremismo, consecuencias que, por desgracia, nos son cada vez más cercanas.

Como decía el gran científico, lo que se entiende bien hay que saber explicarlo de forma sencilla, y todo debe simplificarse lo máximo posible, pero no más.

Porque el mundo es complejo, así que el futuro no se construye con titulares, sino con muchos matices. Por eso se hace más necesario que nunca que la capacidad de razonar y de argumentar basada en el conocimiento sea lo más extensa posible.

Uste dut unibertsitatearen betebeharra dela bere ahaleginaren eta jakintzaren zati bat erabiltzea eztabaida publikoak jakintzaren bidez elikatzeko, ideien heldutasun-maila areagotuz.

Euskal Herriko Unibertsitatearen Uda Ikastaroek erakusten dute modu ulergarri batean hitz egin daitekeela gaur egungo gaiez, interpelatzen gaituzten auziez. Jakintza dagoen lekuan, zalantzak eta begirada ugari daude, jakintzaren aurrerapenak beti ekarri duelako berekin ziurgabetasuna, eta herritarrek kontzientzia kritikoz parte har dezakete eta parte hartu behar dute eztabaida guztietan.

Así que el lema de este año, *Ezagutzaren alde jakin-mina piztu*, no podía ser más adecuado. Encendamos las mentes, de la mano del conocimiento. Y en este contexto creo que es especialmente positivo que nuestras instituciones y la Fundación BBVA apoyen este espacio de vacunación.

Permítanme terminar agradeciendo toda esa labor anónima y callada de todas las personas que participan en nuestros cursos de verano, contribuyendo a que nuestra sociedad encienda su mente del lado del conocimiento, y sea por tanto cada vez más democrática, más abierta y más libre. Gracias por ese trabajo que hace tan poco ruido, pero que da muchas nueces. Ellos y ellas dan sentido, dais sentido, a nuestro lema universitario, *eman ta zabal zazu*.

Eskerrik asko.